

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure negozio-ereduak funtziona dezan, beharrezkoak dira funtsezko baliabideak edukitzea. Horregatik, aktibo horiek definituko ditugu. Baliabide horiek hiru motatan bereizi ditzakegu: fisikoak, intelektualak eta finantzarioak.



Hasteko, fisikoei dagokionez, enpresa zuzentzeko lokal bat edukitzea funtsezkoa da. Gure kasuan, ofizina txiki bat eta bilera gela bat ezarriko ditugu UGGASari alokatutako lokalean. Bertan, mahaiak eta aulkiak egongo dira. Ordenagailuak ere eramango ditugu etxetik online zerbitzuan lan egin ahal izateko eta hornitzaileekin kontaktuan egoteko.

Bestalde, baliabide intelektualari erreparatuz, bakoitzak bere abileziak ditu. Bakoitzaren abileziak elkartuz, gure enpresa aurrera eramatea errazagoa egingo zaigu, bata bestearengandik ikasiz.

Osasun mentala zaintzeko zerbitzu bat eskaini nahi izanez gero, ezinbestekoa da jendea entzuteko prest egotea eta horien emozioak kudeatzen jakitea. Laida oso abila da horretan. Txikitan arazo pertsonalak direla medio, psikologoetan ibili zen, eta ongizate emozionalari berebiziko garrantzia ematen ikasi zuen. Beti dago ingurukoak laguntzeko prest. Bere ametsa psikologia ikastea da, eta bereziki, gaztaroa bizitzako etapa zoriontsu bat bihurtzea, askotan arazo gehienak adin horien inguruan etortzen baitira.

Bezeroekin harremanetan jartzeko eta haur eta gazteekiko heziketa egokia mantentzeko beharrezkoa da honekiko abilezia duen persona bat edukitzea. Maddi izango da honen arduraduna. Bere bizipen pertsonalak kontuan izanik, Maddik pertsona bakoitza mundu bat dela, eta denok bizia ikusteko eta sentitzeko modu desberdin bat dugula ikasi du. Honen bitartez, argi du handitan haur eta nerabeen hezitzailea izan nahi duela, hauetako bakoitzari bere inguruarekin eroso egoten eta bizitzaz gozatzen erakusteko. Bestetik, Maddi oso pertsona sortzailea eta irudimen handikoa da.

Josuren kasuan, proiektuak lideratzea oso gustuko du. Taldekideen eginbeharrekoak banatzen eta guztien lana bateratzen oso ona da. Bestalde, matematika eta ekonomia ikasgaietan sekulako notak ateratzen ditu, asko disfrutatzen baitu zenbakiekin. Kirolean ere jokalaria aparta da. Saskibaloian jokatzen du, eta maila altuan gainera. Badaki zer den maila ona eman beharraren presioa jasatea.

Baliabide intelektualak alde batera utziz, baliabide finantzarioei ekingo diegu. Ezinbestekoak dira alokairua eskuratu, soldatak ordaindu edo negozioa zabaltzeko. Hasieran, mailegu bat eskatuko diogu bankuari negozioari ekiteko, eta ondoren, eskuratutako irabaziekin ordainduko ditugu dagozkigun kostu guztiak, eta mailegua itzultzen joango gara. Hala ere, hasieran taldekide bakoitzak 350 € ezarriko ditu bere poltsikotik badaezpada.